

KALITATEZKO ESPERIENTZIA ESZENIKO

BATERA HURBILTZEKO GOMENDIOAK

P R O T O K O L O A

TEVEO

**ARTES
ESCÉNICAS
PARA LA INFANCIA
Y LA JUVENTUD**

**ARTE
ESZENIKOEN
ERAKUSKETEN
BALDINTZAK**

**LEHEN
HAURTZARORAKO,
HAURRENTZAKO
ETA
GAZTEENTZAKO**




ZER DA TE VEO?



**ARTES
ESCÉNICAS
PARA LA INFANCIA
Y LA JUVENTUD**

Haurrei eta gazteei zuzendutako Arte eszenikoen konpainia profesionalen elkarte nazional bat da, 1996an sortu zena erreferentzia-esparru bat sortzeko helburuarekin. Esparru horretan, haur eta gazteentzako antzerkiko profesionalak galderak egin eta erantzunak gara ditzakete, sektorearen garapenera bideratutako proiektuak abian jartzeko eta sorkuntza, ekoizpena eta banaketa hobetzeko ekintzak sustatzeko.



TE VEOk helburu hauek ditu:

- Haurrentzat, gazteentzat eta, hedaduraz, familientzat berariaz egindako jarduera eszenikoak gehiago ezartzera bideratutako mota guztietako ekintzak **sustatzea, banatzea eta gauzatzea**.
- Haurrak eta gazteak **arte eta kultura eszenikorako gerturatzea**.
- **Esperientziak eta lanak trukatzea**, eta kideen jarduera profesionala garatzeko bide berriak sortzea.
- Jarduera berariaz hurrei eta gazteei zuzentzen dieten Arte eszenikoen arloko pertsonak eta erakundeek egindako jarduera profesionala **gizarte- eta kultura-mailan aitortzea**.
- Ikusle gazteenei zuzendutako lengoia eszenikoak **ikertzea eta berritzea**, bai eta sektore horren ekoizpenean, programazioan eta hedapenean esku hartzen duten parametro guztiak ere.

www.teveo.es



1 EDUKIERA MUGATZEA

A Publiko familiarreko saioetan

Besaulki-patioa bakarrik okupatzea gomendatzen da.

B Eskola-saioetan

- **Lehen haurtzaroa** (6 hilabetetik 3 urtera): ez litzateke 100 ikusleko muga gainditu behar.
- **Haur Hezkuntza** (3-6 urte): ez litzateke 200 ikusleko muga gainditu behar.
- **Lehen Hezkuntza** (7-11 urte): edukiera optimoa 300 ikuslekoa izango litzateke, baina 400 ikuslera arte irits liteke.
- **Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa**: 300 ikusle inguru, baina 400 ikuslera arte irits liteke.

Nolanahi ere, programazio-arduradunek konpainia-sortzaileekin kontsultatu beharko dute ikuskizunaren edukiera egokia, eta muga hori errespetatu beharko dute, hainbat alderdiri erantzuten baitio, hala nola piezaren formatuari, ikusleen antolaerari, antzezleen eta ikusentzuleen arteko harremanari eta abarri.

2 GOMENDATUTAKO ADINEN ETA MATERIAL LAGUNGARRIAREN ZABALKUNDEA

Laguntza pedagogikorako materiala eta ikuskizuna sortu den adinei eta gomendatutako edukierari buruzko **informazio zehatza izatea** lagungarria da haurrak eta gazteak antzerkira eramaten dituzten helduek aukera arduratsu bat egiteko.

A Konpainien ardura izango da:

- Edukiera egokia eta gomendatutako adinak **argi eta garbi adieraztea** publizitatean.
- **Material pedagogikoak eta jarduera transbertsalak diseinatzea**, antzerki-esperientzia pieza eszenikoa ikustetik harago sustatzeko, eta irakasleek eta familiek kontsultatu ahal izateko.
- Emanaldiaren ondoren artisten eta ikusleen arteko **topaketa ahalbidetzea**.

B Antzokien ardura izango da:

- Adin egokiak **zabaltzea eta errespetatzea** eta edukiera **mutuatzea**, batez ere eskola-kanpainan.
- Konpainiei **material pedagogikoak eta irakasleentzako laguntza-materiala eskatzea**, bai eta antzokiari obra artistikoa ikastetxeekin eta familiekin bateratzen lagunduko dion beste edozein baliabide ere, antzezpenaren jarduera transbertsalak garatzen laguntzeko.
- **Publikoari bere aniztasunean arreta eskaintzea** eta kultura-esperientzia egokia bermatzea, kultura-gertaera ondasun demokratiko gisa ziurtatzeko beharrezkoak diren inklusio-neurriekin.

3 IKUSLEAK HARTZEKO, KOKATZEKO ETA HAUTEMATEKO BALDINTZA EGOKIAK BERMATzea

A Harrera eta kokapena

Antzokietako langileekin lan egitea, haien sentsibilitatea garatzeko, ikusle txikiak, haien familien eta irakasleen beharretara egokitutako zerbitzua emateko.

B Pertzepzioa

Ikusle txikiak eroso senti daitezen, hurbil egon daitezen eta ondo entzun eta ikus dezaten lortzea, altxagailuak erabiliz, beharrezkoa izanez gero, lagungarria izango da esperientzia positiboa izateko.

C Inklusioa eta aniztasunarekiko arreta

Kultura ez da pribilegio bat, gizaki guztiok dugun eskubide bat da, eta berdintasun-baldintzetan bermatu behar da, kolektibo zaurgarriak edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenak kanpoan utzi gabe. Kultura inklusiboagoa sustatzeko, beharrezkoa da antzokietako instalazioak irisgarriak izatea, eta, horrez gain, beharrezko ekipamenduak izatea, edonori antzerkiaz gozatzeko aukera emateko. Horrela, guztiok, gure gaitasunak, sentsibilitateak edo errealitateak alde batera utzita, ikuskizunaz modu autonomoan eta normalizatuan gozatzeko aukera izango dugu.

4 ANTZOKIAREN ETA ESKOLAREN ETA ANTZOKIAREN ETA FAMILIAREN ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEA, ETA IKUSLEAREN HEZIKETA ETA AHALDUNTZEA BULTZATZEA

Antzokirako bisitak ikuskizun bat ikuste hutsak baino askoz aukera gehiago eskaintzen ditu; horregatik, ezinbestekoa da **esperientzia sentsorial eta intelektual integral** gisa planteatzea. Arteak balio transbertsal eta eraldatzailea du, beste errealitate batzuk ulertzeko aukera ematen du, eta hezkuntza-baliabide gisa jakin-mina eta sormena erabiltzen ditu gizaki guztien berezko trebetasun gisa. Antzokiek publikoaren eta antzokiaren arteko "**bitartekariaren**" **figura ezarri** behar dute, eta bitartekari horrek honako funtzio hauek izango ditu:

- Haur- eta gazte-ikusleen **beharrak hautematea**
- Sentsibiltate artistikoa sustatzen duten **hezkuntza-proposamenak planteatzea**
- **Antzokiaren eta eskolaren eta antzokiaren eta familiaren arteko harremanak bultzatzea**, sortzaileen, programatzaileen, irakasleen eta familien arteko komunikazio fluidoa bermatzeko.
- **Ikuslearen heziketa- eta ahalduntze-programak diseinatzea eta garatzea**
- **Jarduera osagarriak proposatzea**, dela pieza eszenikoei lotutakoak, dela haurrak eta gazteak antzokira hurbiltzeari lotutakoak
- Ikuskizunetarako **gomendatutako adinei buruzko informazioa ematea**
- **Edukiera-mugak gainbegiratzea** eskola-kanpainetan
- **Aniztasunari eta inklusioari erantzutea**
- **Analisi- eta ebaluazio-lana egitea**, zer helburu lortu diren eta ikuskizunak zein harrera izan duen jakiteko tresna gisa, eta lotutako funtzio eta jardueren antolaketa eta koordinazioan hobe-kuntzak ezartzea

Kontuan izan behar dugu bitartekotza EZ dela sorkuntza/programazio artistikoaren ondorio bat; biak aldi berean garatzen dira; horregatik, funtsezkoa da erakusketa-espazioen, konpainien eta eremu geografiko bereko eskolen artean etengabeko lankidetzaren egotea, ekintza bateratuak garatzeko helburuarekin; horrek aukera ematen die ikusle gazteei saioan zehar edo jarduera osagarrietan lantzen ari diren edukiak beren errealitatearekin berehala erlazionatzeko eta errealitate horretan aktiboki parte hartzeko.

5 PROGRAMAZIO EGONKORRAK ERAKUSTERA ETA SUSTATZERA BIDERATUTAKO BALIABIDEAK HANDITZEA

Ikusle txikiak eta gazteak herritarren parte dira, eta, Konstituzioan zehazten den bezala, berrmatuta eduki behar dute **kultura eskura izatea, pertsona guztien eskubide unibertsala den heinean**. Horretarako, estrategiak diseinatu eta garatu behar dira, ikusle gazteek gertaera eszenikoa norberarena dela senti dezaten, beren errutinen barruan normalizatuz eta ohitura osasungarri bihurtuz. Haurrengan, gazteengan eta familiengan ikusle-ohiturak sustatuko dituzten programazio egonkorrek egiteko baliabideak handitu behar dira, bi programazio-lerroekin:

- A Familia-programazioa:** arte eszenikoen aukera aisialdirako eta kulturarako eskaintza gisa eskaintzeko, eta estimuak eta atxikimenduak sustatzen dituen “esperientzia” positibo gisa.
- B Eskola-programazioa:** artea eta kultura eskuratzeko berme demokratiko gisa.

Programazioaren diseinuari dagokionez, askotariko diziplina eszenikoak hartu behar ditu kontuan: antzerkia, dantza, txotxongiloak, zirkua, musika, multimedia eta abar.

Bi programazioetan, baliabide gutxi dituzten familien, haurren eta gazteen eskuragarritasuna erraztu behar da, gizarte-premia desberdinei erantzun dieten politiken bidez. Era berean, beharrezkoa da landa-eremuetan bizi diren biztanleak erakusketa-gune egokiak dituztela bermatzea, eta, horretarako, aurre egin behar dieten joan-etorrietarako zailtasunak konpontzea.

6 ANTZERKI-ESKAINTZA ADIN GUZTIETARA ZABALTzea

Haurrei eta gazteei buruz hitz egiten dugunean, **egungo eta etorki-zuneko ikusleei buruz hitz egiten dugu**. Ikusle mota horrek arte eszenikoekin duen harremana ez da eskolaz kanpoko jarduera batera edo urtean behin antzerkia ikusteko txango bat egitera mugatu behar. Eszenan gertatzen denarekin benetan lotura izateko eta itzultzeko nahia izateko, beharrezkoa da alde z aurretik eta ondoren lan bat egi-tea, edukiarekin ohitzeko. Horretarako, beharrezkoa da **elkarriketa horizontala ezartzea**, kode bera erabiltzea eta ulertzea besaulki-pa-tioaren logika ez dela berdina nerabeekin eta haurrekin.

Adin guztietan bultzatu behar dira arte eszenikoak, baina, une hone-tan, programazioa indartu eta arreta berezia jarri behar da ikus-entzule haue-tan:

A Lehen haurtzaroa (6 hilabete - 3 urte):

- **Espazio eta jaialdi espezifiko**en sorrera bultzatzea
- Artistek eta antzokiek kontu handiz zehaztu behar dute **adin ego-kia**: “urtebetetik aurrera”, “2 urtetik aurrera”, “2 urtetik 4 urtera”, haurren garapen kognitiboa eta emozionala kontuan hartuta.
- **Heziketa-tailerrak** eta bestelako ekintza osagarriak eskaintzea
- Publiko horren eta artisten arteko **topaketa bultzatzea**
- Agertokia eta jardun-eremuak artistentzat eta publikoarentzat **se-guruak direla bermatzea**
- Baliabide gutxi eta/edo behar bereziak dituzten familien **irisgarri-tasuna sustatzea**

- **Erakusketa-baldintza** jakin batzuk zaintzea:
 - Berokiak, orgatxoak eta haurtxoen aulkiak uzteko gunea
 - Komunetan aldagailuak jartzea
 - Espazioa publiko horrentzat eta haien laguntzaileentzat modu egokian egokitzea: kuxinak, zoru bereziak, berariazko harmailak eta abar.

B Ikusle gazteak (+ 14 urte):

- **Espazio eta jaialdi espezifiko**en sorrera bultzatzea
- Haiengandik eta **haien interesetatik hurbil dauden gaiak** dituzten ikuskizunak programatzea
- Hiriko **antzokia ikusle gazteei hurbiltzeko eta irekitzeko** ekintzak garatzea: haiek protagonista eta konplize eginez.
- Artistekin **tailerrak, topaketak eta solasaldiak egitea**
- **Berariazko prezio-politikak ezartzea**, deskontuekin edo abonuak sortuta
- **Berariazko erakusketa-ordutegiak** ezartzea

7 BERARIAZKO NEURRIAK

7.1 AZOKAK ETA JAIALDIAK

Arte eszenikoen azokek eta jaialdiek berezko idiosinkrasia dute, eta askotan haurrentzako eta gazteentzako sorkuntzen errealitatearekin talka egiten dute. Zentzu horretan, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan:

- **Sorkuntzak xede duen publikoaren presentzia.** Haurrek harrera egiteko eta, ondorioz, berrelikatzeko moduak funtsezkoak dira haurrei zuzendutako pieza asko behar bezala garatzeko, eta,

beraz, ezinbestekoa da haiek ikusle gisa egotea.

- Haurrentzako eta gazteentzako **berariazko jarduerak sortzea**, azokaren edo jaialdiaren garapenean integratzea sustatzeaz gain. Ikastetxeekin eta haurrei eta gazteei lotutako beste erakunde batzuekin loturak sortzea gomendatzen da.

7.2 ESKOLA-ZIRKUITUAK

Haurren eta gazteen lehen esperientzia eszenikoak esparru akademikoan gertatzen dira, gehienetan eskola-zirkuituen bidez, baina lehen hurbilketa hori aspergarria edo etsigarria izan daiteke, ikasgela barruan zein kanpoan behar bezala eta sentsibilitatez lantzen ez bada. Beharrezkoa da antzerkia zer den, nola funtzionatzen duen eta leku horretako "arau zehatzak" zein diren azaltzea, eta, horretarako, hezkuntza-erakundeak ezinbesteko aliatuak dira. Arte eszenikoetako profesionalen eta irakasleen artean komunikazio fluido egon behar da ikasgelan dauden errealitate desberdinetara hurbiltzeko, eta, artistak eskoletan eta institutuetan sartzeari garrantzitsua den bezala, funtsezkoa da, halaber, irakasleek zeregin aktiboa izatea gazteek obrekin duten loturan. Esku hartzen duten eragile guztien arteko lan-kidetza funtsezkoa da bitartekaritzaren lana arrakastaz egin dadin:

Antzokira joan aurretik:

- Egingo duten jarduera hurrekin eta gazteekin **partekatzea**: Erakina nolakoa den, nola mugituko diren, barruan zer gertatuko den, portaera-arauak eta abar azaltzea hasiera ona da esperientzia berri hori ezagunagoa izan dadin.
- **Ikasgelan obrarekin lotutako alderdiak lantzea**. Horretarako, funtsezkoa da antzokien eta ikastetxeen arteko lan estua, material pedagogikoa eta irakasleei laguntzeko materiala eskainiz.

Antzokian egon bitartean:

- Ikasleek izan ditzaketen beharrei erantzutea.
- **Portaera-arauak** gogoratzea.
- Antzokian bertan eta konpainiarekin, ikasleek obrari buruzko informazio gehiago lortzea, gaiaz hitz egitea, antzerkiaren inguruan esperimentatzea eta abar ahalbidetuko duen **jardueraren bat egitea**.
- Ekoizpen eszenikoarekin zerikusia duten **lanbideei buruzko** zenbait alderdi ezagutzea obraren harrera hori hobetzeko bidea izan daiteke ere.

Antzokira joan ondoren:

- **Ikuskizuna edo antzerkiaren testua ikasgelara eramatea**, dela konpainiaren material pedagogikoa landuz, dela bizitako esperientziari lotutako edozein jarduerarekin.

Sektore pribatuak ezin du erantzukizun osoa bere gain hartu lehen deskribatu diren ekintzak garatzean, ez baitu hurrek eta gazteek sorkuntza-prozesuetan demokratizazioa eta parte-hartze aktiboa bermatzeko baliabide nahikorik. Horregatik, funtsezkoa da erakunde publikoen laguntza egonkorra izatea, haien inplementazioa eta biziraupena bermatzeko, txikitatutako kulturalak aberatsa eta konprometitua den herritartasuna lantzeko. Arte eszenikoek hezkuntza-esperientzia aberasteaz gain, norbanakoen garapen intelektualari ere laguntzen diote, horietan kultural-ohitura osasungarriak sustatuz, beren nortasuna eraikitzen lagunduz eta beren ahotsak eta esperientziak adierazteko plataforma bat eskainiz.

TEVEO



NON GAUDE?



C/ Pasión, 13, 4º Dcha.
47001 Valladolid



secretaria@teveo.es



(+34) 646 98 08 65

JARRAI GAITZAZU SARE SOZIALETAN!

[@asociacionteveo](https://www.instagram.com/asociacionteveo)



ANTZOKIRA JOAN AURRETIK JARRAITU BEHARREKO JARRAIBIDEAK

Antzokira joan aurretik, jokaera-arau argiak ezarri behar dira antzez-penean **giro egokia bermatzeko**, besteak beste, puntualtasuna, isiltasuna, ingurunearekiko errespetua, aktoreekiko eta gainerako langileekiko errespetua, baita jateko, edateko, emanaldian zehar aretotik irteteko edo telefono mugikorrak erabiltzeko debekua ere. Arau horiek parte-hartzaile guztiek errespetatu behar dituzte, eta erakusketagiro ona sustatu behar dute, ikuskizunari harrera ona egingo zaiola bermatzeko.

Garrantzitsua da ikasleei jarraibide hauek gogoraraztea, guztion artean giro egokia sortzen lagundu ahal izateko, ikuskizuna behar bezala garatu ahal izateko eta arte-esperientzia bere osotasunean gozatzeko:



LEHEN HAURTZARORAKO, HAURRENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO ARTE ESZENIKOEN

- **Informa zaitez** / Gogoratu funtsezkoa dela, antzokira etorri aurretik, ikusiko duzun ikuskizunaren **berri ondo jakitea**; horrela, gehiago gozatuko duzu.
- **Puntualtasuna** / Puntualak ez bagara, antzokian sartzen garenean enbarazu egingo diegu aktoreei eta lankideei, horregatik emanaldira berandu iristen bagara **sartu gabe gera gaitezke**.
- **Isilik, mesedez** / Aktoreek kontzentrazioa behar dute ikuskizunean zehar, **horregatik isilik eta adi egon behar dugu**. Jakina, telefono mugikorrek itzalita egon behar dute.
- **Ez janaririk, ez edaririk, ezta mugikorrik ere** / Ez da aretoan jan edo edan behar, ezta mugikorra erabili behar ere, eta geldirik eta isilik egoten saiatu behar da, **aktoreekiko errespetuagatik**.
- **Eserita** / Ikuskizunean, denok egon behar dugu eserita, **eta ez da sartu edo irten behar** emanaldian zehar.
- **Errespetatu ingurunea** / Instalazioak zaindu behar ditugu, guztion artean ingurune **garbi eta atsegina sortzen** laguntzeko.
- **Errespetatu besteak** / Aktoreek ahalegin handia egin behar dute ikuskizun guztietan; obra interesatzen ez bazaizu, pentsatu besteengan, agian haiei interesa dakieke.
- **Errespetatu aktoreak** / **Ezin da argazkirik atera, ezta bideorik grabatu ere**. Antzezpenak irauten duen bitartean, ikusleek ez dira aktoreengana joango, haiek gure laguntza eskatzen dutenean izan ezik
- **Txaloak** / Ikuskizuna amaitzean, txaloak izango dira artistentzat **saririk onena**.

L E H E N
HAURTZARORAKO,
HAURRENTZAKO ETA
GAZTEENTZAKO
ARTE ESZENIKOEN
ERAKUSKETEN
BALDINTZAK

**ARTES
ESCÉNICAS
PARA LA INFANCIA
Y LA JUVENTUD**



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA

inaem

INSTITUTO NACIONAL DE
LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA